

MUSIKA

BAIONA

- **Luna Blues: Nico, Greg eta Luc.** Luna Negra kabaretean, 20:30etan.
- **Los hermanos Sanchez.** Koli-seoan, 21:00etan.

BILBO

- **Lagun artean kantari Josu Zabala eta Anje Duhalderekin.** Kafe Antzokian, 20:00etan.

DONOSTIA

- **Vocale Karlsruhe abesbatza.** Mariaren Bihotza elizan, 20:15etan.

GETXO

- **The Moran Chori.** Israelgo abesbatzaren kontzertua. Al-gortako Villamonte auzoko San Martin de Tours elizan, 20:00etan.

ANTZERKIA

BILBO

- **El barbero de Sevilla.** El Tric-cle antzerki taldearen eskutik, Ayala Antzokian, 20:00etan.

IRUN

- **Antzerki amateurra.** Makila el-karteak antolatuta. Amaia KZn, 18:00etan.

ZINEMA-BIDEOA

BILBO

- **Tango.** Boulevard kafean, 19:30etan.

DONOSTIA

- **Euri gizona (Rain man).** Gro-seko Okendo kultur etxean, 19:30etan. Groseko auzo elkar-teak antolatuta.
- **Antxetakoei ongi-etorriaren bideoa (toma faltsuak ere bai).** Egiako gazte lokalean.

HITZALDIA

ARRIGORRIAGA

- **Euskal komunikabideak eta euskararen normaltasuna.** Mahai-ingurua kultur etxean, 19:30etan. Hizlariak: Fermin Etxegoien, Fernando Muniozgu-ren, Martxelo Otamendi, Luzien Etxezarreta eta Igone Etxeba-rria.

BILBO

- **Bidaia-rien tertulia.** Lutxanako Taberna de los Mundosen, 19:30etan.
- **Euskal dantzen sinbologia.** Juan Antonio Urbeltzen eskutik Ingenieritza eskolan, 13:00etan.

DONOSTIA

- **Mahai-ingurua: Kebur Sabar eta etorkin magrebtarrak.** Kol-do Mitxelena, 19:00etan.

BESTELAKOAK

Irati kultur zirkuituaren hasiera • Gaur, bideoa Burlatan, eta hitzaldia Leioan

Irati: euskal kultur lapikoa pil-pilean

JOAN DEN urriaren 30ean 53 elkarte bildu ziren Iru-ñean, eta urtebeteko lana-ren ondoren Irati elkargu-nea jarri da abian. Azaro eta abenduko plangintzak zehaztuak dituzte, eta aste honetan zenbait ekitaldi izango dira: gaur, Leioako Kukurdi elkartean, Iker Casanovak *Zergatik inde-pendentzia eta sozialkis-moa?* hitzaldia emango du 19:30etan. Ordu berean bideo emanaldia izango da Burlatako Zumadi elkar-te-an. Altsasun, berriz, sukal-daritza eta txalaparta ikas-taroak izango dira Herria Eginez elkartean. Eta Lesa-kan Lizarra-Garaziri buruzko mahai-ingurua izango da ostiralean.

Irati kultur elkarguneko koordinatzaileak Maider Etxeberri (Iparraldean) eta Juani Lizaso (Hegoaldean) dira. Lizaso ilusio handiz ari da proiektuan lanean. «Kultur munduan aritzen garen zenbait kideren kez-katik abiatuz, elkargune bat sortu nahi genuen behar batzuei erantzuteko. Hiru helburu orokor jarri ditugu: naziotasuna, Irati-ko sortze prozesuan Euskal Herri osoko jendea dago; euskaltasuna, euskarari eman nahi diogu lehenta-suna, nahiz eta lekuan lekuko hizkuntza erabili behar izango den mezua zabaltzeko; eta herritasu-na, euskal kulturaren iru-dia folklorismora konden-a-



ANDER GILLENEA

Zortzi astetan sukaldaritza ikastaroa izango da Altsasuko Herria Eginez elkartean, Irati kultur zirkuituaren barnean.

tuta dagoela dirudi, eta guk euskal kultura kultur aurrerakoi gisa jorratu nahi dugu, gauza berriak sortzeko indar eta asmoa-rekin. Artista berriei ere bultzada eman nahi diegu». Helburuak betetzeko martxan jarri dituzten ildo-ak, berriz, beste hauek dira: herri bakoitzak egi-ni-ko plangintzak bildu eta guztien artean plangintza nazionala egitea. Horiek optimizatzen saiatuko dira koordinaziotik. Bestetik, elkarteak azpiegitura eta tresneriaren zerrendak egi-ten ari dira, baita herri bakoitzeko artisten zerren-da. Hala, Lizaso koordina-tzaileak dio artistei zirkui-tuan parte hartzeko aukera emango zaiela. Ekimenen publizitateaz gain, hiru

hilabetean behin aldizkari bat aterako da. «Lehenengo alea soilik Iratiri buruzkoa da, baina hemendik aurre-ra kultur gaiak eztabaida-tzeko eta lantzeko helbu-ruarekin kaleratuko da», esan du Juanik. Bere uste-tan, erakundeek indartzen duten kultur mota oso eli-tista da, eta oso leku gutxi uzten zaie gazteei. «Lan neketsua egin behar dute nolabaiteko fruituak ikus-teko. Kultur merkatuan sartuak ez daudenek oso zaila dute beren lana era-kustea». Iparra eta Hegoa gerturatzen eta elkarte ahulei laguntzen ere saia-tuko da Irati elkagunea. Ez da gutxi.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

kiak. Usurbe Antzokiko erakus-keta aretoan.

BERGARA

- **Abesbatzaren historia.** Kultur etxeko erakusketa aretoan, aza-roaren 26a arte.

BERMEO

- **Azterkosta.** Arrantzaleen mu-seoan, azaroaren 5a arte.

BILBO

- **Juan Angel Arrietaren argaz-kiak.** Espacio de los Mundosen, azaroaren 29a arte.
- **A factory.** Andy Warholen era-kusketa, Guggenheimen, urta-rrilaren 16a arte.
- **Hiru tolesturak.** Julio Gonza-lezen lana, emakume baten iru-dia. Arte Ederretako Museoan, azaroaren 14a arte.
- **1919-1939 Argazki Publikoa.**

Arte Ederretako museoan, aza-roaren 14a arte.

- **Derechos humanos: de las pa-labras a los hechos. 50 años después.** Argazki erakusketa Gaurgiron, azaroaren 12a arte.
- **Tina Haase, Marcel Berlanger eta Loek Grotjanesn lanak.** Vanguardia arte galerian, aben-duaren 14a arte.

DERIO

- **Juanjo Garfiaren pinturak.** Andrea hotelean, abenduaren 12a arte.

DONOSTIA

- **Alfonso Berridiren eskultu-rak.** DV Galerian, azaroaren 14a arte.
- **Catalina de Erauso arte elkar-tearen 25. urteurreneko era-kusketa.** Kutxako erakusketa aretoan, azaroaren 7a arte.

- **Izarren bidea.** Mar-Pol taldea-ren argazkiak. Garibai erakus-keta aretoan, azaroaren 7a arte.

ELIZONDO

- **Jaione Arriren pintura erakus-keta.** Kultur etxean, azaroaren 8a arte.

ERMUA

- **Fernando Castañonen margo erakusketa.** Udaletxeko era-kustokian, azaroaren 25a arte.

GASTEIZ

- **Berbatxuak edo Kleine woor-den.** Iratxe Jaioren marrazkiak. Caruso kafetegian, abenduaren 27a arte.

GALLARTA

- **Mirian Okarizen pinturak.** Kultur etxean, azaroaren 27a arte.

GERNIKA

- **Hileta eskultura publikoa eta euskal eskultoreak.** Euskal Herria museoan, abenduaren 12a arte.

GETXO

- **Fran Lezamaren oleoak.** Algor-tako erakustaretoan, azaroaren 13a arte.
- **Sagrario Nebredaren lanak.** Erromoko erakusketa aretoan, azaroaren 11a arte.

IGORRE

- **Hace una década.** Erakusketa kolektiboa, Vade Retro aretoan, azaroaren 5a arte.

PASAJA

- **Fruitupia.** Patxi Itulainen ar-gazki erakusketa. Antxoko Ka-mio tabernan, azaroaren 28a arte.

URRETUXU

- **Komiki erakusketa.** Itarte etxean, azaroaren 7a arte.

BESTELAKOAK

ARRIGORRIAGA

- **Nire lagunekin baratzean.** Txontxongiloak Arrigorriagako eskoletan, goizeko 10:00etan.

BEASAIN

- **Arrate Leunda.** Ipuin kontala-ria, Ezkiagako auzo etxean, 18:30etan.

GASTEIZ

- **M.C.M.** Maria Cruz Morales ipuin kontalaria, Foru aldu-ndi-ko kultur etxean, arratsaldeko 18:00etan.

TOLOSA

- **Tolosako Babarruna labelaren aurkezpena.** Kultur etxean, goizeko 11:00etan.

URNIETA

- **Ardi Beltza proiektuaren aur-kezpena.** Lekaio kultur etxean, 20:00etan.